

GAIZKI ERRANKA

# Manipulazioa



Santi Leoné  
@ororostorm

Espainol onek badakite –espainol gaiztoak ere badira, kopurua zehaztea zaila den arren– Kataluniako TV3k manipulatu duela. Naski ez dute sekulan ikusi; ikusi nahi izatera ez zuketena deus ulertuko zeren, katalan guziek gaztelaniaz xarmanki badakite ere, katalanez emititzen tematzen baita eta hori, nahasgarria izateaz gainera –hainbertze bokal, hainbertze izenordain ahul–, aski susmagarria baita. Espainol onek ez dute TV3 inoiz ikusi, eta beharrik ere ez, manipulatu ez duten hedabide onek azaldu baitiete Espainiako erki-dego hartako telebista publikoan manipulazioa dela nagusi.

Iduri luke gauza bera dela herri batera arreta mediatikoa erdiesteko asmoz probokatzerara joatea eta zure herrian horrelako eraso bat sufritu behar izatea

Orobat, manipulatu ez duten hedabide horiei esker dakite espainol on guziek Altsasun jendeak gorroto duela Guardia Zibila, eta gorroto horrek bulkatu zuela bi guardia zibilek jasan zuten eraso basatia. Espainol onek beharbada ikusi zuten bortizki zafratua izan ondotik guardia zibil horietarik baten atorra zurian ez zela odol tantarik, artean hain zuria zela ezen maindire saindua bota eta Kristoren gorpua biltzeko balio bailezake, honen duintasuna inolaz ere menestu gabe; apika irudiak ikusiko zituzten, eta atzendu ere bai, manipulatu ez duten hedabideek argi azaldu baitute gauza aditu gabea dela polizia baten ahotik gezurrik ateratzea.

ETB2ko Teleberrin ere “batzuk eta bertzeak” izan zituzten mintzagai Altsasun gertatutakoa komentatzean, eta ibiliko ziren batzuk eta bertze batzuk herrian barna, baina horrela adierazita iduri luke gauza bera dela herri batera arreta mediatikoa erdiesteko asmoz probokatzerara joatea eta zure herrian horrelako eraso bat sufritu behar izatea.

Izanen dira, jakina, manipulatu ez duen ETBren mezu hori sinesten duten euskal herritar onak, baina batzuetan euskal herritar gaiztook nahiago genuke ETBk pixka bat manipulatu balu. TV3k bezainbertze, sikiera. ■

